



Asier Oiartzabal euskal preso politikoa aske geratu da, zigor osoa beteta

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 17/06/2025

Hogeita lau urtez izan dute gatibu preso politiko andoaindarra.

Asier Oiartzabal Txapartegi euskal preso politikoa gaur gelditu da aske, hogeita lau urte preso egin ostean. Martuteneko kartzelan egin ditu espetxealdiko azkeneko urteak, 2023tik gaur arte. Izan ere, 2023an lekualdatu zuten Lannemezanetik Martutenera. Lannemezanko esptxean egon aurretik, Saint Maur-en zegoen, sorlekutik 680 kilometrora.

2001ean kartzelaratu zuten andoaindarra, 30 urteko espetxe zigorra ezarri baitzioten, ETaren aparatu logistikoko kide izatea eta dinamita lapurtzea egotzita. 2024ko maiatzean 3. gradua eskuratu zuen eta 2024ko abendutik baliabide telematikoen bidez bete du bere zigorra.

Bi dira azken orduotan askatasuna berreskuratu duten preso politikoak. Astelehenean bertan Atarrabiako **Txetxu Barrios euskal preso politikoa aske geratu zen** baldintzapean, 27 urteko espetxealdiaren ostean.

<https://eh.lahaine.org/asier-oiartzabal-euskal-presopolitikoa>